




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Misto (ARALAR)  
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

SARRERA-ENTRADA	 GIPUZKOAK. BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA
	2005 OTS. 06 FEB. 06
	Zk./N.º 07/E/1238
Esp. Exp. 07/C/13/1230	

## MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak **ARALAR** Talde Mixtoko bozeramaleak ondorengo **idatzizko informazio eskaera** egin nahi dio Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Foru Diputatuari:

- Pasaia – Irun zonaldeko, erakunde arteko batzordean erabiltzen ari den ordenamendu proiektuko eskema zuzentzailea. Lurralde Antolaketa definitzeko lantzen ari den Oinarrizko Dokumentua.

## ZIOA

Gure taldeak, erakunde arteko batzordean lantzen eta burutzen ari den eskema zuzentzaileak Pasaia biziberritzearekin eta Kanpoko Kaiaren proiektuarekin interakzio zuzena eta lotura hertsia duela deritzo. Osagai guztiekin lurralde eredu konkretua definitzen da. Informazio garrantzitsua da. Beraz, eskema zuzentzailea gure eskuetan izatea ezinbestekotzat jotzen dugu, Pasaia eta inguruetako proiektuak ikuspegi globaletik aztertzeko, proiektu desberdinak euren artean izan dezaketen lotura hobeto aztertzeko, eta horrek inguruko bizi kalitatean izango duen eragina datu objetiboen bidez aztertzeko. Hain zuzen ere, datu objetiboetan oinarritzen ez diren balorazioak ekiditeko.

Donostian, 2006ko otsailak 6

Rebeka Ubera Aranzeta  
ARALAR BATZARKIDE TALDEA